

SAN TELMO MUSEOA SOZIETATE ANONIMOA

Lizitazio iragarkia.

Donostiako San Telmo Museoko ekipamendu museografikoen diseinua, hornikuntza, instalazioa eta aldi baterako mantentze-lanak egiteko prozedura ireki bidezko kontratazioari buruzkoa.

1.- Erakunde adjudikatzailea

San Telmo Museoa S.A.

2.- Kontratuaren xedea

- a. **Deskribapena:** Donostiako San Telmo Museoko ekipamendu museografikoen diseinua, hornikuntza, instalazioa eta aldi baterako mantentze-lanak egitea.
- b. **Lotetan zatituta:** Ez.
- c. **Gauzatze-lekua:** Donostia
- d. **Lanak gauzatzeko epea:** Diseinua, 6 hilabete. Hornikuntza eta instalazioa: diseinua onetsiz geroztik, 7 hilekoa; onespenerako gehienezko epea hilekoa denez, 14 HILABETE, GUZTIRA.

3.- Izapidetzea, prozedura eta esleitze-era

- a. **Izapidetzea:** arrunta
- b. **Prozedura:** irekia
- c. **Era:** Lehiaketa

4.- Lizitazioko oinarrizko aurrekontua: 5.172.413,79 euro gehi BEZ

5.- Behin-behineko bermea: Ez da eskatzen.

6.- Dokumentazioa eta informazioa eskuratzea:

San Telmo Museoa, SA
Elbira Zipitria Andereñoa, 1
20003 Donostia
Telefonoa: 943-48.15.77
Faxa: 943-48.15.81

7.- Dokumentazioa eta informazioa jasotzeko azken eguna:

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu arte. Dokumentazioa amaierako eguna baino 6 egun lehenago entregatuko da, beranduenez; 6 eguneko aurretiaz, gutxienez, eskatu baldin bada, betiere.

8.- Kontratataren betebeharrak espezifikoa

- a. **Sailkapena:**
Ez da ezartzen.
- b. **Kaudimena:**

b.1 **Gutxienezko kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa:** Azkeneko bi urteetako edozeinetako negozio-zifra, gutxienez ere, kontratuaren zenbatekoa baino ehuneko hogeita hamar handiagoa izatea, eta urte horietako edozeinetan egindako hornidurena, gutxienez ere, kontratu honen zenbatekoaren berdina izatea.

b.2. Gutxienezko kaudimen tekniko edo profesionala: Enpresak azkeneko hiru urteetan kontratu honen xedearen antzeko proiektu museistikoak diseinatzeko, hornitzeko, instalatzeko, koordinatzeko eta mantentzeko izan duen esperientziari dagokion guztizko zenbatekoa gutxienez ere kontratu honen aurrekontu maximoa baino handiagoa izatea.

9.- Eskaintzen edo parte hartzeko eskaeren aurkezpena:

a. Aurkezteko azken eguna:

2008ko urriaren 15a

b. Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Baldintza orrietan zehaztutakoa (orriok adierazitako helbidean jaso ahal izango dira, edo web orri honetan bertan eskuratu litezke).

c. Aurkezpen lekua:

San Telmo Museoa (Elbira Zipitria Andereñoa, 1-20003 Donostia) 9:00etatik 13:30era udako ordutegian, eta 9:00etatik a 14:00etara neguko ordutegian.

d. Lizitatuak bere eskaintza mantendu beharko duen epea:

4 hilabete

e. Aldaerak onartzea:

Ez dira onartzen.

10.- Eskaintzak irekitzea:

2008ko urriaren 22ko 12:00etan, Donostia Kulturaren egoitzan (Konstituzio plaza, 1-20003 Donostia).

11.- Iragarki-gastuak (Estatuko eta Europako Batasuneko Aldizkari Ofizialetan –EAO eta EBAO–)

Esleipendunaren kontura.

Donostia, 2008ko uztailearen 24a

Antton Azpitarte
Zuzendari kudeatzailea